

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZANBRANAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak eta prezio publikoak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketari

Udalbatzak 2024ko abenduaren 20an egindako bilkuran hartutako erabakiaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igaro da (2025eko urtarrilaren 10eko ALHAOn argitaratu zen, 3. zenbakian), eta ez da erreklamaziorik aurkeztu. Horrenbestez, hasierako onespene erabaki hori behin betiko bihurtu da, bat etorritoki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c artikuluan xedatutakoarekin.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da ALHAOn, indarrean sartu dadin.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiko Administrazioarekiko Auzien Salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, Administrazioarekiko Auzien Araubidearen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Nolanahi ere, bidezko jotzen den beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

ZERBITZU PUBLIKOEN ETA ADMINISTRAZIO JARDUEREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

1. XEDAPEN OROKORRAK

Udal honek, bat etorritoki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailan jasotakoarekin, prezio publikoak ezartzen eta eskatzen ditu l. eranskinean jasotzen diren zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik, ordenantza honetan jasotako baldintzetan; eranskin hori ordenantza honen zati da.

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzen da.

2. ZERGA EGITATEA

Arabako Lurralde Historikoko udalerriek prezio publikoak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte udalaren eskumeneko zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik, udalbatzak onetsi ondoren eta araudi honen esparruan.

Udalak benetan zerbitzua ematea edo jarduera egitea izango da zerga egitate, zerbitzu hori gizabanakoek zuzenean eskatu dutelako, edo gizabanako horiek egin dituzten edo egin ez dituzten jardueren ondorioz zeharka sortu delako.

3. SUBJEKTU PASIBOA

1. Bat etorritoki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 48. artikuluan xedatutakoarekin, prezio publikoak ordaintzera behartuta egongo dira prezio horiek ordaintzeko betebeharra ezartzen duten zerbitzuen edo jardueren onuradun direnak.

2. Hauek izango dira zergadunaren ordezkariak:

a) Etxebizitzen edo lokalen erabiltzaileei mesede egiten dieten edo eragiten dieten zerbitzuen-gatik edo jarduerengatik ezarritako tasetan, higiezin horien jabeak. Jabeek onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Arriskua aseguratzen duten entitate edo sozietateak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri prebentzioa, eraikuntza eta eraisketak; salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

c) Hirigintza lizentzien tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

Hauak ordaindu behar dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen ez badituzte baina haiek egindako edo ez egindako zerbaitengatik egin behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa egotz dakiekeen pertsonak.

4. ZERGA OINARRIA

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinak dioenaren arabera.

5. KUOTA

Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat aplikatzearen emaitza, ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatzearen emaitza.

6. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortuko da tasa.

7. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, bai eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian ere.

8. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta eranskina, hartan agertzen den egunean behin betiko onetsi ziren eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta hala jarraituko dute harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

**ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK
EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA****1. EPIGRAFEA.– UDAL IGERILEKUA ERABILTZEA****1. artikulua. Xedea**

Udako denboraldian udal igerilekuen esparrua abonatu edo erabiltzaile soil gisa erabiltzea edo erabiltzeko aukera da zerga egitatea.

2. artikulua. Abonamenduak eta sarrerak eskuratzeko sistema

Sarrerak edota abonamenduak PVERDE aplikazioaren bidez erosi behar dira.

Eguneko sarrerak egun osorako balio du, 12:00etatik 20:00etara.

3. artikulua. Instalazioen edukiera

Udalak eskubidea izango du abonamendurik edota eguneko sarrerarik ez emateko, baimendutako edukiera gainditzeko arriskua dagoela iruditzen bazaio.

Hau da udal igerilekuen gehieneko edukiera:

ZONA	GEHIENOKO EDUKIERA
Igerilekuen esparrua	522
Igerileku handia	137
Igerileku txikia	35

4. artikulua. Salbuespenak eta hobariak

Lau urte edo gutxiago edukiz eta lagunduta egonez geroko, ez dute ezer ordaindu beharko. Salbuespen hori aplikatzeko, aldez aurretik egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Familia ugariaren hobariak aplikatzeko, aldez aurretik egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

5. artikulua. Tarifak

KONTZEPTUA	KUOTA
EGUNEKO SARRERA	
Sarrera orokorra	4,50 euro
URTEKO ABONAMENDUA	
Abonamendu orokorra	35,00 euro
% 20ko deskontua, abonamendu bakoitzean, familia ugaria izateagatik	28,00 euro

2. EPIGRAFEA.– UDAL PILOTALEKUA ERABILTZEAREN TASA**1. artikulua. Xedea**

Zerga egitatea da udal pilotalekuko instalazioak eta aldagelak erabiltzea edo erabiltzeko aukera.

2. artikulua. Abonamenduak eta sarrerak eskuratzeko sistema

Sarrerak edota abonamenduak PVERDE aplikazioaren bidez erosi behar dira.

3. artikulua. Salbuespenak eta hobariak

Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira Zanbranako Udalak, udalerriko administrazio batzarrek, udalarekin hitzartutako kultura elkarteek eta Zanbranako Arlote Kirol Klubak sustatutako eta/edo antolatutako jarduerak.

4. artikulua. Fidantzak

Egun oso bateko edo gehiagoko erreserben kasuan, Zanbranako Udalarekin harremanetan jarri beharko da haren egoitza elektronikoaren bitartez (<https://zambrana.egoitzaelektronikoa.eus/info.0>). Eskaera, gutxienez, 10 egun baliodun lehenago aurkeztu behar da.

Egun osoko erreserbak egin aurretik fidantza jarri beharko da, eta fidantza hori erreserba berretsi aurretik eskatu ahal izango da.

5. artikulua. Tarifak

INSTALAZIOA	KONTZEPTUA	KUOTA	FIDANTZA
Udal pilotalekua	Ordubeteko erreserba argirik gabe	4,00 euro	0,00 euro
	Ordubeteko erreserba argiarekin	5,00 euro	
	Egun osoa (herriko jaiegunak, txapelketak...)	90,00 euro	350,00 euro
Udal aldagelak	Sarrera	2,00 euro	0,00 euro
	Egun osoa (herriko jaiegunak, txapelketak...)	20,00 euro	25,00 euro

3. EPIGRAFEA.– ZANBRANAKO GIZARTE ETXEA ERABILTZEAREN TASA**1. artikulua. Xedea**

Zerga egitatea da gizarte etxeko 2. solairuko erabilera anitzeko aretoa erabiltzea edo erabiltzeko aukera kultura ekitaldietarako, hitzaldietarako, ikastaroetarako eta antzekoetarako.

2. artikulua. Erreserba sistema

Egun oso bateko edo gehiagoko erreserben kasuan, Zanbranako Udalarekin harremanetan jarri beharko da haren egoitza elektronikoaren bitartez (<https://zambrana.egoitzaelektronikoa.eus/info.0>). Eskaera, gutxienez, 10 egun baliodun lehenago aurkeztu behar da.

Egun osoko erreserbak egin aurretik fidantza jarri beharko da, eta fidantza hori erreserba berretsi aurretik eskatu ahal izango da.

3. artikulua. Salbuespenak eta hobariak

Tasa eta fidantza ordaintzetik salbuetsita egongo dira Zanbranako Udalak, udalerriko administrazio batzarrek, udalarekin hitzartutako kultura elkarteek eta Zanbranako Arlote Kirol Klubak sustatutako eta/edo antolatutako jarduerak.

4. artikulua. Fidantzak

Erreserbak egin aurretik fidantza jarri beharko da, eta fidantza hori erreserba berretsi aurretik eskatu ahal izango da.

Aretoaren alokairuaren barruan sartzen dira:

- Argiztapen orokorra.
- Aire girotua.
- Ohiko garbiketa.
- Ez, ordea, langilerik eta ikus-entzunezko baliabiderik.

5. artikulua. Tarifak

INSTALAZIOA	KONTZEPTUA	TARIFA	FIDANTZA
Zanbranako gizarte etxeko 2. solairuko erabilera anitzeko gela	2 orduko erreserba (gutxienez)	15,00 euro	200,00 euro
	Erreserba prezioa aparteko ordu bakoitzeko, erreserbako gutxieneko 2 orduetatik aurrera	2,50 euro	
	Egun osoa edo gehiago	25,00 euro/egun	

6. artikulua. Instalazioen edukiera

Gizarte etxeko erabilera anitzeko aretoaren gehieneko edukiera honako hau da:

ZONA	GEHIENKO EDUKIERA
Gizarte etxeko erabilera anitzeko gela	50 pertsona

4. EPIGRAFEA.– UDAL MATERIALA MAILEGATZEA**1. artikulua. Xedea**

Zerga egitatea da udalerriko kontzejuek edo elkarteek udal jabetzako materiala erabiltzea edo erabiltzeko aukera izatea.

2. artikulua. Erreserba sistema

Maileguan eskatzeko Zanbranako Udalarekin jarri beharko da harremanetan, maileguan jaso baino, gutxienez, 10 egun baliodun lehenago. Eskaera hori egoitza elektronikoaren bidez egingo da (<https://zambrana.egoitzaelektronikoa.eus/info.0>).

3. artikulua. Fidantzak

- a) Instalazioen eskatzaileek ordaindu beharko dituzte.
b) Ekitaldia hasi baino, gutxienez, 48 ordu lehenago ordaindu beharko da fidantza.

KONTZEPTUA	TARIFA	FIDANTZA
BOZGORAILUAK	0,00 euro	100,00 euro/bozgorailua
AULKIAK	0,00 euro	2,00 euro/aulkia
MAHAIK	0,00 euro	15,00 euro/mahaia
TAULAK + ASTOAK	0,00 euro	5,00 euro/taula+2 asto
KOADRO ELEKTRIKO ERAMANGARRIA	0,00 euro	100,00 euro

5. EPIGRAFEA.– TXIKIPARKA ERABILTZEARENTASA**1. artikulua. xedea**

Zerga egitatea da gizarte etxean dagoen txikipark espazioa erabiltzea edo erabiltzeko aukera.

2. artikulua. Erreserba sistema

Sarrerak edota abonamenduak PVERDE aplikazioaren bidez erosi behar dira.

3. artikulua. Instalazioen edukiera

Udalaren txikiparkaren gehieneko edukiera (50 metro koadro) hau da:

ZONA	GEHIENKO EDUKIERA
Umeentzako txikiparkaren lokala	22 pertsona

4. artikulua. Tarifak

TARIFA	KUOTA
Eguneko sarrera indibiduala	1,00 euro
Bost egunetarako sarrera indibidualaren abonamendua	4,00 euro
Urtebeterako sarrera indibidualaren abonamendua	28,00 euro

6. EPIGRAFEA.– (BERGANZOKO URAREN IBILBIDEKO APARKALEKUA ERABILTZEAREN TASA**1. artikulua. Zerga egitatea**

Zerga egitatea da Berganzoko Uraren Ibilbidearen sarreran dagoen aparkalekua erabiltzea edo erabiltzeko aukera.

2. artikulua. Erreserba sistema

Sarrerak edota abonamenduak PVERDE aplikazioaren bidez erosi behar dira.

Aparkalekuaren ordutegia: 07:00 - 22:00.

Ezin da, inola ere, gaua aparkalekuan igaro.

3. artikulua. Instalazioen edukiera

Uraren Ibilbidearen aparkalekuaren gehieneko edukiera hau da:

ZONA	GEHIENEO EDUKIERA
Uraren Ibilbidearen aparkalekua	35 ibilgailu

4. artikulua. Tarifak

TARIFA	KUOTA
Autoak	4,00 euro
Motozikleta	2,00 euro
Karabanak eta autokarabanak	6,00 euro
20 eserleku baino gutxiagoko autobusak	22,50 euro
20 eserleku baino gehiagoko autobusak	45,00 euro

7. EPIGRAFEA.– UDAL GIMNASIOA ERABILTZEAREN TASA**1. artikulua. Zerga egitatea**

Zerga egitatea da udal igerilekuetako kirol esparruan dagoen gimnasioa eta hango makinak erabiltzea edo erabiltzeko aukera.

2. artikulua. Erreserba sistema

Sarrerak edota abonamenduak PVERDE aplikazioaren bidez erosi behar dira.

3. artikulua. Instalazioen edukiera

ZONA	GEHIENEO EDUKIERA
Gimnasio gunea	58 pertsona
Aldagela gunea	16 pertsona

4. artikulua. Tarifak

TARIFA	KUOTA
Hilabeteko abonamendua	7,00 euro
Urteko abonamendua	70,00 euro

8. EPIGRAFEA.– HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK ETA ZERBITZUAK

1. artikulua. Zerga egitatea

Zerga egitatea da udal jarduera teknikoa eta administratiboa, eta honako hau egiaztatzea du xede: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aipatzen diren eta udalerrian egin behar diren eraikuntza- eta erabilera-egintzak bat datozen lege horretan eta indarrean dauden gainerako xedapenetan xedatutako hirigintza-, eraikuntza- eta polizia-arauekin. Zerga egitate izango da, halaber, aurretiazko komunikazioaren araubideari lotutako obrei dagokienez egiten den kontrol-, egiaztapen- eta ikuskapen-jarduera, eta, oro har, hirigintzako ikuskapen, kudeaketa eta plangintzarekin eta beste zerbitzu batzuen prestazioarekin lotutako zerbitzu teknikoak.

2. artikulua. Subjektu pasiboak

1. Subjektu pasibo zergadunak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak, baldin eta eraikuntza edo instalazioak egin nahi diren edo obrak egitea proiektatzen diren edo gauzatzen diren edo kasuan kasuko zerbitzu edo jardueren onuradun edo eraginpean dauden higiezin jabeak, edukitzaileak edo errentariak badira.

2. Nolanahi ere, eraikitzaileak eta obren kontratistak zergadunaren ordekoak izango dira.

3. artikulua. Erantzukizun solidarioa eta subsidiarioa

1. Subjektu pasiboaren zerga betebeharrangatik era solidarioan erantzungo dute Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 41. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 42. artikuluan aipatutako pertsona edo entitateak izango dira erantzule subsidiarioak.

4. artikulua. Tarifak aplikatzeko arauak

1. Lizentzia eskatzen den unean sortuko da tasa ordaintzeko beharra edo, nahiz eta ez eskatu, azaldutako tarifak ordaindu beharra dakarten egitateak gertatzen direnean.

2. Ofizioz egingo da lizentzia luzatzearen tasaren likidazioa obra egikaritzeko epea amaitu ondoren, nahiz eta interesdunak eskatu ez, baldin eta hirigintza legeek luzapen hori ahalbidetzen badute.

3. Obrak udalaren betearazpen agindu baten ondorioz hasi edo egiten direnean, udal zerbitzua edo jarduera benetan hasten denean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra, ofizioz edo hirugarren interesdunak eskatuta.

4. Kontzejuek ez dituzte ordaindu beharko hirigintza zerbitzuak ematearen tasak.

5. artikulua. Tarifak

HIRIGINTZA LIZENTZIAK	TARIFAK
1. Obra lizentzia edo egikaritze agindua, ikuskapen eskubideak barne, eta, hala badagokio, lehen okupazioko lizentzia Egikaritze agindu bati eragindako interesdunek jaramonik egiten ez badiote eta udal administrazioak subsidiarioki jardun behar badu, % 100eko errekgua aplikatuko zaie likidatu beharreko kuotei	6.000,00 euro gehienez 25,00 euro 6.001,00 - 30.000,00 euro 50,00 euro 30.001,00 euro baino gehiago 100,00 euro
2. Obra lizentziaren titulartasuna aldatzea	Sortzen den negozio juridikoak EIOZn likidatutako eskubideen % 5
3. Obra lizentziaren luzapena	Emakida egitean likidatutako tasaren ehuneko 100
4. Iraungitze espedienteen ondoriozko obra lizentzia	Emandako lizentzian likidatutako EIOZren ehuneko 15
5. Finkak partzelatu, taldekatu, bereizi eta zatitzeko lizentzia	Lurzoru urbanizaezinean 50,00 euro Hiri lurzoruan 100,00 euro
6. Hirigintzako arau hausteagatik legeztatze lizentzia	Obra lizentziari dagokion kuota gehi gauzatze aurrekontuaren % 10 (gehienez ere, 1.000,00 €)

HIRIGINTZA ZERBITZUAK	TARIFA
1. Aldizkarietan edo aldizkari ofizialetan argitaratzea behar duten hirigintza espedienteak izapidetzea, alderdi batek eskatuta	400,00 euro
2. Eraikuntzaren antzinatasunari eta hirigintza diziplinako espedienterik irekita ez egoteari buruzko txostena	55,00 euro
3. Beharrezkotasunik ezaren adierazpena	55,00 euro
4. Lurren ezaugarriei buruzko edo eraikuntzarako hirigintza txostena, alderdi batek eskatuta	150,00 euro
5. Hirigintzako arau haustearen iraugintzeari buruzko hirigintza txostenaren ziurtagiria	150,00 euro
6. Alderdi batek aurrri adierazpena egiteari buruzko txostena	150,00 euro

9. EPIGRAFEA.– JARDUERA LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

1. artikulua. Xedea

Honako hauek osatzen dute tasa honen zerga egitatea:

1. Jarduera lizentziak emateko zerbitzu teknikoak edo administratiboak ematea.

2. Aurretiazko komunikazioaren eta erantzukizunpeko adierazpenen araubidearen mendeko jarduera eta instalazioei dagokienez ematen diren kontroleko, ondorengo egiaztapeneko eta ikuskaritzako administrazio zerbitzuak.

2. artikulua. Aplikazio arauak

1. Tasaren sortzapena lizentzia eskaera aurkezten denean gertatzen da edo, lizentziarik eskatu ezean, ondorengo arauan aipatzen diren inguruabarretako bat gertatzen denean.

2. Ordainarazpen honen ondorioetarako, hauek izango dira irekitzeko lizentzia lortu beharra duten establezimendu edo instalazioak:

a) Hasierako instalazioak, bai eta merkataritza, industria edo zerbitzuetarako erabiltzen diren makinak edo beste elementuak jartze hutsa ere, nahiz eta berehala ez abiarazi, funtzionatu edo ireki.

b) Lokalez aldatzea.

c) Jarduera aldatetak, nahiz eta izena, titulartasuna edo lokala berbera izan.

d) Jarduera handitzea; horrelakotzat hartuko da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuota igotzea, salbu eta igoerak zergak aldatu direlako gertatzen badira.

e) Lokalak handitzea.

3. Lizentzia eman ondoren establezimenduek jarduera aldatzen badute, egoera hauen arabera likidatuko da tasa:

– Jarduera berria dela eta jardueren gaineko zergan dagokion atala edo dibisioa aldatu behar bada, tarifa orokorrean ezarritakoaren arabera zehaztuko da tasa.

– Jarduera batek irekitzeko bi lizentzia lortu beharra badu, kopuru handieneko epigrafearen arabera ordainduko da.

4. Emateko erabakia hartuta, interesdunek berariaz uko egin ahal izango diote lizentziari. Horrela egitekotan, eskubidea izango dute ordaindutako tasaren ehuneko 80 itzul dakien, edo, hori ordaindu ez badute, likidazioaren ehuneko 20 ordaintzeko, baldin eta lizentzia eman dela jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan uko egiten badiote. Baldin eta 30 egun horiek igarota baina ematearen jakinarazpenaren hurrengo hiru hilabeteren barruan uko egiten badiote, ehuneko 50 itzultzeko edo murrizteko eskubidea izango dute.

5. Lizentzia eman ondoko hiru hilabeteetan establezimendua edo lokala irekitzen ez bada, lizentzia eta harengatik ordaindutako tasa iraugintzat joko dira. Gauza bera gertatuko da ireki ondoren berriro ixten bada edo jarduera ekonomikoen gaineko zergan baja emanda badago sei hilabetez, ezinbesteko kasuetan izan ezik, hau da, ezinbesteko arrazoiengatik edo inguruabarrengatik establezimendua edo lokala itxi behar bada edo haren irekiera atzeratu behar bada.

6. Ez zaie kargarik ezarriko lizentzia eskualdaketei, baldin eta indarrean dauden arauetara egokitzeko lizentzia emateko prozedura izapidetu beharrik ez badute.

7. Tasa hau autolikidazioaren prozeduraren bidez bildu ahal izango da.

3. artikulua. Tarifak

JARDUERA LIZENTZIAK ETA BAIMENAK	TARIFA
1. Jarduera lizentziaren titulartasuna aldatzea	55,00 euro.
2. Sailkatu gabeko jarduerak, jarduera sinplifikatu edo kaltegabearen aurretiko jakinarazpenarekin	55,00 euro
3. Sailkatutako jarduerak, aurretiazko jakinarazpena behar dutenak	160,00 euro

10. EPIGRAFEA.– UDAL ZERBITZUAK, AGIRIAK EGIN ETA EMATEA

1. artikulua. Zerga egitatea

Zerga egitatea da, interesdunak eskatuta, tasa honi lotutako dokumentuak eta espedienteak izapidetzeko eskaera.

2. artikulua. Subjektu pasiboak

Subjektu pasiboak izango dira tasa honen sortzapena eragiten duen administrazio jarduera eskatzen dutenak, jasotzen dituztenak edo haren eraginpean geratzen direnak.

3. artikulua. Aplikazio arauak

Eskaera egiten den unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra.

4. artikulua. Tarifak

ZIURTAGIRIAK, IZAPIDEAK ETA BAIMENAK	TARIFA
1. Ezkontza zibilen espedienteak izapidetzearen tasa	55,00 euro
2. Alderdi batek eskatuta udal erroldan baja emateko espedientea izapidetzearen tasa	100,00 euro
3. Armen lizentzia txartelak izapidetu eta ematearen tasa. Laugarren kategoria	15,00 euro
4. Arrikutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroan inskribatzea	10,00 euro
5. Arrikutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematearen edo berritzearen tasa	60,00 euro

11. EPIGRAFEA.– AZTERKETA EGITEKO ESKUBIDEEN TASAK

1. artikulua. Xedea

Tasaren zerga egitatea da funtzionarioen kidego edo eskaletara edo udal honek deitutako langile lan kontratudunen kategorietara sartzeko edo igotzeko probetan izangai gisa parte hartzea eskatzen dutenen artean funtzionarioak eta langile lan kontratudunak hautatzera bideratutako jarduera tekniko eta administratiboa.

2. artikulua. Sortzapena

Tasa aurreko artikuluan aipatzen diren hautaprobetan izena emateko eskabidea egiten den unean sortuko da, deialdian adierazten den moduan, eta ez dira izapidetuko ordainketa udal diruzaintzan sartu izanaren frogagiria aurkeztuta egiaztatzen ez duten eskabideak.

3. artikulua. Zerga kuota

Tasaren zerga oinarria, langileak aukeratzeko prozesuetan udalak garatu behar duen jardueraren kostua da, nahitaezko iragarkien zenbatekoak, halakorik balego, eta epaimahaikideen bertaratzek eta joan-etorriak barne direlarik.

Tasa arautzailearen zerga kuota kopuru finko batek zehazten du. Kopuru hori hornituko den lanpostuaren azpitaldearen arabera ezartzen da, izangai bakoitzari dagokionez.

4. artikulua. Aplikatzeko erregelak

Adierazitako azpitaldeetan sartuta ez dauden lanpostuen kasuan, horretarako eskatzen den titulazioaren parekatze maila hartuko da tasa parekatzeko parametrotzat.

Ezarritako zenbatekoak, langileak aukeratzeko prozedurak oso-osorik beren amaierara arte izapidetzeari dagozkio, probak gainditu direlako nahiz interesduna prozesuaren edozein urratsetan baztertuta geratu delako amaitu.

5. artikulua. Likidazioa eta ordainketa

Lehiatu nahi den plaza bakoitzerako tasa, izenduna eta banakakoa, prozesuan izena emateko eskaera egiten den garaian ordaindu beharko da, udalak zehazten duen banku kontuan. Transferentzian interesdunaren izena eta lortu nahi den plazaren izena adierazi beharko dira. Transferentziaren frogagiriaren kopia erantsi beharko zaio izena emateko eskabideari. Ordainketa ez egiteak berekin ekarriko du hautagaia hautaketa-prozesutik kanpo uztea.

Ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko administrazio jarduera subjektu pasiboari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ematen ez denean.

Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ordenantza honetan aipatzen den administrazio jarduera egiten ez denean edo behar ez bezala egiten denean, subjektu pasiboak ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango du.

6. artikulua. Aplikazio arauak

TALDEA	TARIFA
A1	50,00
A2	45,00
C1	40,00
C2	35,00
ELT (E lanbide taldeak)	30,00

Zanbrana, 2025eko otsailaren 21a

Alkate-lehendakaria

MARIA TRINIDAD ZARZA MARTINEZ